



## **SORTZAILEAK: TWITTER**

---

## **SORTZAILEAK: TWITTER**

---

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei sare sozialetan sortzen dituzten edukiei buruz galdetu diegu, zehazki Twitterren sortzen dizutenei buruz. Txosten honetan datu horiek jasotzen dira.

### **1. Ohar metodologikoak**


Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkorren eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkitzen dira 2021eko maiatzaren 3tik 8ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa gazteek Twitterren sortzeko duten ohiturei buruzkoa da. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 858 erantzun baliozko hartu dira kontuan (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

## 2. TWITTER

Inkestatuen ia bi herenek Twitterreko kontua dauka, zehazki % 64,5ek, 740 pertsonen zenbaki absolutuan.


### 1. Irudia – Baduzu Twitterreko konturik?



Iturria: Ikusiker Applika +

Kontuen erdiak baino gehiago publikoak dira, % 54,2 zehazki. Era berean, % 10,6k ez du gogoratzen edo ez daki nolakoa den bere kontua.


### 2. Irudia – Zure kontua publikoa ala pribatua da?



Iturria: Ikusiker Applika +

Sare sozial honetan, jarduerarik ohikoenak “besteen txioak irakurri” eta “Twitter erabili orokorrean” dira; elkarrekintzari lotutako bi jarduera nagusiak “besteen txioetan bihotzari eman” eta “besteen txioak birtxiokatu” dira.


3. Irudia – Twitterren eduki eta erabiltzaileekin interakzioak izateko moduak zein maiztasunarekin egiten diren?



Iturria: Ikusiker Aplikari +

Twitterrera igo ohi diren edukiak inprobisatu egin ohi dira: edukiren bat sortzen duten pertsonen artean, ia erdiek (% 46,1ek) dio momentuan bururatutako edukiak sortu eta igotzen dituela, eta beste % 17,2k momentuan bizitzen ari dena edo gertatzen ari zaiona igotzen du. Aurretik pentsatutako edukiak % 10,8k igotzen ditu, eta galerian gordetako edukiak igotzeko ohitura % 6,0k du. Beste erabiltzaileek sortutako edukiak igo edo konpartitzen dituztenak % 14,2 dira, eta zehazki lagunenak konpartitzen dituztenak % 2,2.


#### 4. Irudia – Adierazi Twitterrera igotzen dituzun edukiak nola sortzen dituzun NAGUSIKI



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitterrera igotzea gogoko diren ohiko edukien artean, nabarmentzekoak dira eduki barregarriak (sortzaileen artean % 34,8k aukeratuak), egunerokoa gertatzen zaizkien gauzen edukiak (% 24,5ek aukeratuak), eta argazki artistiko eta estetikoak (% 13,0k aipatuak). Besteen kasuan, inkestatuen % 10ek ere ez ditu aukeratu.


#### 5. Irudia – Zeintzuk dira Twitterrera igotzea gogokoen dituzun argazki, bideo eta edukiak? Bakarra aukeratu.



Iturria: Ikusiker Applika +

Hizkuntzari dagokionez, sortzaileen artean bi heren baino gehiagok sortzen dituzten edukietan gaztelania da nagusi: % 68,4ak hain zuzen. Horietatik % 36,8k beti gaztelaniaz sortzen ditu edukiak eta % 31,6k gaztelaniaz gehiago euskaraz baino. Segidan, euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntzaren batean sortzen dituzte normalean edukiak inkestatuak % 9,2k. % 8,4k kopuru antzekotan sortzen ditu euskaraz eta gaztelaniaz, eta azkenik, % 14,0ren kasuan da nagusi euskara beren Twitterreko sorkuntzan: % 7,6k euskaraz gaztelaniaz baino gehiago sortzen du eta % 6,4k beti euskaraz.

6. Irudia – Hizkuntza aldetik, zenbateko pisua du euskarak Twitterren sortzen dituzun edukietan?



Iturria: Ikusiker Applika +

**Nola aipatu txosten hau:**

NOR Ikerketa Taldea (2021). "Sortzaileak: Twitter". Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 22. Txostena. 2021eko maiatza. Applika Ikerketa-proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://www.ikusiker.eus>